

Localización de campos de concentración y Batallones de Trabajadores / Kontzentrazio eremuak eta Langile Bataioiak izandako zenbait toki, 1938  
Fuente/turria: Archivo General Militar de Ávila, CGG, Cp.46bis, D.01, folio 73. I.H.C.M., M. de Defensa

## PARTE I

Los trabajos  
forzados en  
la historia  
contemporánea

## I. ATALA

Bortxazko  
lanak  
historia  
garaikidean

## Historia y reinención del utilitarismo punitivo

Pedro Oliver (Universidad de Castilla-La Mancha)

Dar a conocer la penalidad del pasado no es tarea de anticuarios. Prueba de ello es que nos obliga a hacer paralelismos históricos, incluso con el presente. Pero no todo el mundo piensa igual. La luz que se ha arrojado sobre la memoria todavía viva de la represión franquista, quizás aún no consiga dejar turbados a quienes insisten en explicar la historia penal moderna como un sendero de progreso, el cual, con el triunfo del liberalismo habría dejado atrás las crueldades del Antiguo Régimen. De todas formas, esa actitud incorregible, si bien sigue enquistada en ciertas tribunas, ya no tiene crédito alguno, porque al sostenerse o en la ignorancia o en el sectarismo intelectual, no consigue enseñar nada. Por eso los lectores de estas páginas, cuando piensen en lo que nos comunica la historia de los trabajos forzados entre los siglos XVI y XIX, podrán deducir que la intensidad y la sistematicidad de la violencia institucional desplegada posteriormente por el franquismo contra sus presos y prisioneros llegó a superar largamente la de cualquier otra experiencia punitiva de la España contemporánea, e incluso la de algunos otros períodos anteriores. Una referencia amarga y aleccionadora.

También podríamos pensar que, si bien los trabajos forzados en arsenales militares y en obras públicas entraron en crisis y fueron desechados tempranamente durante las décadas centrales del siglo XIX, en cambio, el régimen esclavizante de los Batallones Disciplinarios de Soldados Trabajadores en los años cuarenta del siglo XX, con ser cruel, en nada puede compararse a la dureza extrema de la vida en las galeras o en las minas de Almadén. Eso es cierto en líneas generales, pero también desconsola-

dor. Porque al confrontar casos tan extremos debemos considerar que aquellas penas durísimas -ya se percibían como inhumanas cuando fueron abolidas muchos años antes de que naciera el propio Franco-, se dictaron contra bastante menos población y a lo largo de varios siglos. Para mayor abundancia, si lo que se pretende al comparar es hacer inferencias acerca de la capacidad de infringir dolor a los condenados, y así reflexionar sobre el daño producido por regímenes tan alejados en el tiempo, también habría que tener en cuenta la atmósfera de terror que rodeaba a los represaliados en los campos de concentración y en los batallones disciplinarios del ejército franquista. No se olvide el añadido de violencia ambiental que envolvía a los cautivos de una guerra civil tan sangrienta, y a los castigados durante una represión de posguerra tan indiscriminada y tan incierta, con miles y miles de fusilados.

### Prisioneros al servicio del Estado moderno

Aunque se conocen prácticas mucho más antiguas, fue en el siglo XVI cuando, de una manera cada vez más explícita, los jueces empezaron a sentenciar a los reos a servir forzosamente a la Corona, por lo que se puede seguir una secuencia de imposición de castigos que llevó a miles de penados desde las galeras a los presidios y, a partir de la segunda mitad del XVIII, al trabajo en obras públicas.

Eso es lo que hemos dado en llamar utilitarismo penal, o si se prefiere, utilitarismo punitivo (pues con este otro concepto ampliamos la noción de castigo, tantas veces

ejercido fuera del ámbito estricto de la justicia criminal). La explotación de la fuerza de trabajo del prisionero se ha interpretado desde varias perspectivas teóricas que no voy a desarrollar aquí (Oliver, 2006). Tan sólo reseñaré con un breve enunciado las dos que más han influido en la historiografía española y sobre todo en las incursiones historiográficas de juristas y penalistas: por un lado, la llamada perspectiva humano-pietista observa la historia de los trabajos forzados (y de la penalidad en general) como fases que se fueron superando en un lento pero progresivo devenir que nos ha ido conduciendo hacia estadios de mayor humanización penal; por otro, la perspectiva marxista (económico-estructural), después matizada o revisada gracias al impacto de la obra de Foucault y del culturalismo, contempla las formas penales dentro de la historia social del castigo y, en concreto, plantea que la imposición de los trabajos forzados en algunas zonas de Europa al menos desde el siglo XVI cumplía funciones de regulación del mercado de trabajo, de control social y cultural de las poblaciones subalternas, y de expansión mercantilista y militarista del Estado. Mucho más habría que añadir pero, en cualquier caso, ninguno de esos enfoques niega la evidencia empírica de los fines utilitaristas que perseguía la Corona al recabar de los jueces que enviaran forzados a trabajar en las galeras, las minas, los presidios y los arsenales.

Por lo que se refiere a la política judicial de la Monarquía Hispánica, además del hilo cronológico, también podemos distinguir un orden diferente de aplicación de las penas en función de las divisiones estamentales. Mientras que a las galeras siempre fueron destinadas las gentes

## Utilitarismo punitiboaren historia eta berrasnaketa


Pedro Oliver (Universidad de Castilla-La Mancha)  
Itzultzailea: Maite Mangado

Iraganaren penaltatea jakinaraztea ez da antikuarioren eginbeharra. Horren proba da paralelismo historikoak egitera behartzen gaituela, baita orainaldiarekin ere. Baina denok ez dugu berdin pentsatzen. Errepresio frankistaren memoria biziari buruz agertzen ari den informazioak ere ez ditu lotsatzen historia penal modernoa aurrerapenerako bidezidor gisa azaltzen segitzen dutenak, eta horien arabera, liberalismoaren garaipenak atzean

utzi zuen bidezidor horretan Antzinako Erregimenaren krudelkeria. Dena den, zuzendu ezinezko jarrera horrek (oraindik zenbait iritzi guneetan barneratua eta batere sinesgarritasunik gabekoa) ez du deus irakasten, ezjakintasunean edo sektarismo intelektualean oinarritzen baita. Horregatik orrialde hauen irakurleek, XVI. eta XIX. mende bitarteko bortxazko lanen historiari pentsatzen dutenean, ikusiko dute frankismoak preso eta prisioneroen aurka

erakusitako indarkeria instituzionalaren intentsitateak eta sistematizitateak Aro Garaikideko Espainiako eta aurreko denboraldi batzuetako beste zigor-esperientzietakoak gainditu zituztela. Erreferentzia latza eta hezigarria.

Armategi militarretan eta herri-lanetan egiten ziren bortxazko lanak krisian sartu eta goiz baztertu ziren, XIX. mendearen erdialderako. Hala ere, pentsa genezake XX. mendeko 40ko hamarkadan Langile Soldadu Batailoi Diziplinarioen erregimen esklabizantea, krudela izan arren, ezin dela konparatu galera edo Almadengo meategietan izaten zuten bizimodu ikaragarri gogorarekin. Orokorreran hori egia da, baita atsekabetzeko modukoa ere, muturreko egoera horiek alderatzen ditugunean zigor latz horiek (Franco jaio baino askoz lehenago indargabetu zituztenean jadanik krudeltzat jotzen zituztenak) jende gutxiagoren kontra eta zenbait mendetan zehar ezarri zirela kontuan hartu behar dugulako. Gainera, konparatzean gure asmoa zigortuei mina egitearen gaitasunari buruzko inferentziak ateratzea bada, eta horren bidez denboran elkarrengandik hain urrun dauden erregimen horiek egingandako kalteei buruz hausnartzea, kontuan hartu beharko genuke ejertzito frankistaren kontzentrazio-esparruetan eta diziiplina batailoietan errepresaliatuek bizi zuten izu giroa. Ezin ditugu ahaztu horren odoltsua izan zen gerra zibileko gatibuek jasaten zuten inguruko bortizkeria, ezta gerraosteko errepresio bereizi gabeko eta aldakorra ere, milaka fusilatu eta desagertuekin.



BDST 35, Son Moreg, Mallorca, 1942

Fuente/Iturria: Archivo General Militar de Ávila, M.E., C.20904, Cp.2, F.10. I.H.C.M., M. de Defensa



Zumaiaiko Diziplina Ospitalea / Hospital Militar Disciplinario de Zumaia, 1942  
Cesión / Lagapena: Txomin Uriarte

del común, en cambio, a penar en los presidios del norte de África sólo iban destinados los nobles condenados al servicio de armas. Será más adelante, ya en el siglo XVII, cuando los presidios empiecen a recibir reos del estado llano sentenciados a realizar trabajos de fortificación. Durante los siglos XVI y XVII la pena de presidio no fue verdaderamente relevante si la comparamos con la de galeras, un auténtico sustitutivo de la pena capital debido a que los monarcas necesitaban penados en las embarcaciones que se enfrentaban a la presión otomana y berberisca. En la Corona de Castilla, durante los siglos XVI y XVII, la pena más importante fue la de galeras -un 80 % del total-, mientras que las penas de destierro y las de muerte significaron sólo un 5% y un 4% respectivamente (Heras, 1994: 278). En teoría, la pena de remo podía durar hasta diez años, pero en esas embarcacio-

la severísima penalidad del Antiguo Régimen, fueron consideradas por la tratadística ilustrada y por algunos destacados pensadores como Beccaria y Bentham, aún más horribles que la pena de muerte.

Existió otro destino presidial tan especialmente duro que fue equiparado judicialmente al de galeras. Me estoy refiriendo a la extracción de mercurio en las minas de Almadén. El naturista inglés Guillermo Bowles calculó que en las antiguas y ricas minas manchegas sufrieron condena unos dos mil hombres durante los dos siglos y medio que duró la pena de minas, desde mediados del siglo XVI hasta 1799. Las terribles faenas que tuvieron que acometer aquellos forzados -de entre las que destacaba la limpieza del desagüe de azogue, "el más activo de los venenos" a juicio de los directores del es-

nes que algunos llamaron *infiernos flotantes*, lo más frecuente era encontrar la muerte mucho antes. Además, toda aquella crueldad judicial, marcada por la arbitrariedad, en la práctica recibía como añadido (aún más cruel) la indeterminación de los tiempos de condena (Alejandre, 1978). Las galeras, las deportaciones, las condenas a trabajos forzados, las cadenas perpetuas y otras tantas muestras de

tablecimiento- provocaron una gran mortandad: "la probabilidad de morir en la mina era de casi el cuarenta por ciento" (Prior, 2003: 111).

La pena de presidio se hizo más relevante a mediados del siglo XVIII, cuando el Marqués de la Ensenada redobló los proyectos militares y cuando la eficacia de las galeras estaba muy en entredicho. Al mismo tiempo, pero más aún al concluir la mayor parte de las construcciones militares, fue ganando importancia el trabajo forzado de los prisioneros en las obras públicas que habían proyectado los políticos ilustrados. Cada vez eran más los penados susceptibles de ser obligados a trabajar, de hecho se decidió llamar también a presos con penas menores. Además, y al igual que había ocurrido anteriormente, cuando se llegó a castigar a los moriscos con la pena de minas, también se aprovechó la mano de obra forzada de otra minoría represaliada -los gitanos- para construir canales de riego (Oliver, 2001: 114). Este tipo de penalidad se extendía, precisamente, cuando el Antiguo Régimen iba a entrar en su caótico final.

### **Del utilitarismo al retribucionismo y al correccionalismo del Estado liberal**

Penar en las minas de azogue, las galeras del rey y los presidios africanos fue la consecuencia de un modelo de justicia cruel y arbitrario, que aprovechaba el trabajo del reo para ponerlo al servicio de los intereses económicos y militares del Estado moderno. Con su crisis se implementó el trabajo forzado en puertos, canales, caminos, puentes y carreteras. Sin embargo, la presencia

### Prisioneroak Estatu modernoaren zerbitzura

Holako praktikak lehenago eman baziren ere, XVI. mendean hasi ziren epaileak modu esplizituan presoak Koroarentzako bortxazko lanak egitera zigortzen. Zigorren ezarpena sekuentziala da: milaka zigortu galeretatik presondegietara<sup>1</sup> pasatu ziren, eta XVIII. mendearen bigarren erdialdean, herri-lanetara.

Horri utilitarismo penala deitzen zaio, edo utilitarismo punitiboa (zigorra justizia kriminalaren esparrutik kanpo erabili da askotan; eta bigarren kontzeptu horrekin zigorraren nozioa zabaldu egiten dugu). Idazki honetan garatuko ez ditudan zenbait ikuspuntu teorikoen arabera interpretatu da prisioneroen lan indarraren esplotazioa (Oliver, 2006). Hala ere, Espainiako historiografian, eta batez ere legelari zein penalistek egindako sartu-irtenaldi historiografikoetan eragin handiena izan duten bi ikuspuntuak modu oso labur batean azaltzen saiatuko naiz. Batetik, ikuspuntu gizatiar-jainkozalearen arabera, bortxazko lanen historia (eta orokorrean penaltatearena) prozesu bat da, motela baina etengabekoa; eta prozesu horren ondorioz, zigorrak leuntzen eta gizatartzen joan dira. Bestetik dugu ikuspuntu marxista (ekonomiko-estruturala), Foucaulten lanaren eta kulturalismoaren eraginekin geroago berrikusita. Ikuspegi horren arabera, zigor-motak zigorraren historia sozial barruan daude, eta autore horien ustez, Europako zenbait tokitan, eta batez ere XVI. mendetik aurrera, bortxazko lanak lan-merkatua erregulatzeke, menpeko biztanleen gainean gizarte eta kultur kontrola ezarri ahal izateko, eta Estatu hedapen merkantilista eta militarista lortzeko ezarri zituzten. Askoz

gehiago dago esateko, baina dena den, ikuspen guztiak bat datoz puntu batean: inork ere ez du zalantzan jartzen Koroaren helburu utilitarista epaileei eskatzen zitzaizenean zigortuak galera, meategi, presondegi edota armategietara bidal zituzten.

Espainiako Monarkiaren politika judizialari dagokionez, zigorrak modu ezberdinean aplikatu ziren unearen eta gizarte mailaren arabera. Galeretara beti jende arrunta bidaltzen zuten; eta kondenatutako nobleak, berriz, Afrikako iparraldeko presondegietara, arma zerbitzuak betetzera. Geroago, XVII. mendean, herritar xeheak ere bidaltzen hasi ziren presondegietara, gotortze lanak egitera. XVI. eta XVII. mendeetan presondegi zigorra ez zen izan horren garrantzitsua, galeretakoarekin alderatuta. Azken hauetarako zigorra, gainera, heriotza-zigorraren benetako ordekoa izaten zen, erregeek otomandar eta bereberren kontra aritzen ziren itsasontzietan zigortuak behar zituztelako. XVI. eta XVII. mendeetan Gaztelako koroan zigorrak garrantzitsuena presoak galeretara bidaltzea izan zen (zigortuen %80), bestelako zigorrak (%5 erbestera eta %4 heriotza-zigorrera kondenatuak) baino askoz arruntagoa (Heras, 1994: 278). Teorian, galeretan gehie-

nez hamar urte pasatzen ahal zituzten, baina *ur gaineko infernuak* deitutako itsasontzietan askoz lehenago hiltzen ziren presoak. Gainera, krudelkeria judizial bidegabe hori are larriago izaten zen errealitatean, zigorraren iraupena ez zelako inon zehazten (Alejandre, 1978). Tratadistika ilustratuaren eta Beccaria zein Bentham pentsalari gainen arabera, galerak, erbesteratzeak, bortxazko lanak, biziarteko kartzela-zigorra edota Aitzineko Erregimenaren penaltate gogorraren beste adibideak heriotza-zigorra baino ikaragarriagoak izaten ziren.

Juridikoki, galeretara bidalia izatea bezain gogorra izaten zen Almadengo meategietan merkurioa ateratzea. XVI. mendearen erditik 1799 urtera arte, hau da, bi mende eta erdiz, bidali zituzten zigortuak meategietara. Guillermo Bowles naturista ingelesaren ustez, Mantxako meategi



BDST 38, Aritxulegi, Aiako Harria, 1942  
Cesión / Lagapena: Antonio Ansoleaga, prisionero

de prisioneros en obras públicas tendría una difícil y a la postre imposible adaptación a los propósitos capitalizadores del Estado liberal, por lo que podemos asegurar que, mucho antes de que Franco lo reinventara con viejos y nuevos fundamentos ideológicos, el utilitarismo punitivo había desaparecido del sistema penal español. Veamos rápidamente cómo se llegó a esa situación.

En 1834, Canal de Castilla y Caminos de Andalucía, dos grandes empresas que habían sido privatizadas en 1831 y seguían muy interesadas en recibir presidiarios, pudieron imponer sus criterios en la comisión que redactaba la Ordenanza General de los Presidios del Reino, la primera norma relevante en materia de establecimientos carcelarios. La Ordenanza se decantó por el mantenimiento del viejo modelo de presidios, dirigidos por militares y enfocados a utilizar a los prisioneros en trabajos de fortificación o en canales, carreteras y otras obras públicas, posibilitando la cesión de penados a empresas privadas en régimen de mano de obra semigratuita, pues las gratificaciones previstas no pasaban de dos reales y medio de vellón. Sin embargo, en la práctica, y más aún con la guerra carlista de por medio, las empresas que demandaban prisioneros para la realización de obras públicas no vieron satisfechas sus expectativas.

Nunca se consiguió una gestión óptima de los trabajos forzados. Ni siquiera fue posible las veces que las empresas contratistas aceptaron negociar al alza el desembolso al Estado de la masa salarial que debían pagar el Ministerio de Guerra y el de Hacienda, entre otras cosas porque el acuerdo obligaba a tratar a los penados con

humanidad y a dar manutención y cuidados a los que caían enfermos, los cuales llegaban a ser tan numerosos que el compromiso se hacía antieconómico e inviable. Con todo, la Ordenanza permitió que el gobierno moderado de 1837 mandara penados a varios presidios de carretera, concretamente, a los tramos de Ávila-Salamanca, Bonanza-Puerto de Santa María, Córdoba-Antequera, Granada-Motril, Logroño-Calahorra, Palencia-Magaz, Soria-Logroño y Valladolid-Olmedo (Burillo, 1999: 210-217).

A la altura de 1843 se elaboró un reglamento de obras públicas mientras se ponían en marcha las primeras experiencias de talleres internos en las prisiones. El paradigma utilitarista se mantenía a pesar de que cosechaba cada vez más críticas, mayormente en 1844, cuando desde la prensa se denunció la inhumanidad y la mortandad que provocaban los trabajos forzados de los prisioneros. El sistema estaba ya herido de muerte. Desde entonces el Estado empezó a dosificar y a limitar mucho el empleo de reclusos en obras exteriores. A pesar de que con-



BDST 38, Aiako Harria, 1941-1942  
Cesión/Lagapena: Francisco Alonso, prisionero

zahar eta aberatsetan bi mila gizon inguruk bete zuten zigorra. Ikaratzeko moduko lanak egin behar izan zituzten meategietan, eta horien artean zilarbiziaren isurbideetako garbiketak izaten ziren gogorrenak, zilarbizia “pozoirik eraginkorra” baitzen, meategietako zuzendarien ustez. Horrek, jakina, hildako asko eragin zituen: “meategian hiltzeko aukera ia %40 zen” (Prior, 2003:111).

XVIII. mendearen erdian, Ensenadako markesak proiektu militarrek areagotu zituenean eta galeren eraginkortasuna zalantzan zegoenean, presondegi zigorra arruntago bilakatu zen. Aldi berean, eta batez ere eraikuntza militar gehienak bukaturik zeudenean, prisioneroen bortxazko lanek garrantzia hartu zuten politiko ilustratuek pentsatutako herri-lanetan. Gero eta zigortu gehiago izaten ahal ziren behartuak bortxazko lanak egitera; eta zigor txikiak zituztenengana ere jo zuten. Gainera, eta aurrerago gertatu zen bezala (moriskoak zigortzeko meategietara bidali zituztenean), beste gutxiengo errepresaliatutako eskulana, ijitoena hain zuzen ere, aprobetxatu zuten ureztatzeko kanalak eraikitzeko (Oliver, 2001: 114). Antzinako Erregimenaren bukaera kaotikoaren hasieran zabaldu ziren zigor horiek.

### Utilitarismotik Estatu liberaleko erretribuzionismo eta korrekzionalismora

Merkurio meategietara, erregearen galeretara eta Afrikako presondegietara zigortzea justizia eredu krudela eta bidegabearen ondorioa izan zen. Sistema horrek zigortuaren lana jartzen zuen Estatu modernoaren interes ekonomiko

eta militarren zerbitzura. Aitzineko Erregimenaren krisiarekin bortxazko lanak ezarri zituzten portuak, kanalak, bideak, zubiak eta errepedeak eraikitzeko. Hala ere, estatu liberal berriak ez zuen posible izan lan horiek bere baitan integratzea edota horietatik etekin iraunkorak izatea, eta horregatik esan dezakegu zigorren bidezko utilitarismoa, hau da, utilitarismo punitiboa, Espainiako sistema penaletik desagertua zela Francok, oinarri ideologiko zahar eta berriekin, berrasmatu baino askoz lehenago. Ikus dezagun, beraz, nola heldu zen egoera horretara.

Canal de Castilla eta Caminos de Andalucia, 1831n privatizatutako enpresa handiek, haien irizpideak gailentzea lortu egin zuten espetxeei dagokienez lehendabiziko arau garrantzitsua izan zen *Ordenanza General de Presidios del Reino* erredaktatzen zuen komisioan, 1834an. Ordenantza presondegietakoa eredu zaharraren aldekoa zen, eta eredu horretan presondegiko zuzendariak militarrek ziren. Prisioneroak erabiltzen zituzten gotortze lanetan edo kanalak, errepede eta bestelako herri-lanak egiteko. Espetxe eredu horrek posible egiten zuen enpresa pribatuei zigortuak uztea lan egiteko ia doan, aurreikusitako ordainsariak bi eta erdi erreal koarto baino handiagoak ez baitziren. Hala ere, errealitatean, eta karlistada tartean izanda, herri-lanak egiteko prisioneroak eskatzen zituzten enpresek ez zituzten haien nahiak bete.

Ez zen inoiz lortu nahi bezalako bortxazko lanen kudeaketa, ezta enpresa kontratistek Gerra eta Ogasuneko ministerioari ordaindu behar zizkieten soldaten goranzko negoziazioa onartu zutenean ere, beste arrazoen artean, lortutako hitzarmen horrek zigortuak ongi tratatzera eta

mantenu ematera behartzen zituelako enpresak, baita gaixoak zaintzera ere. Eriak asko zirenez, akordioa ez zitzairen errentagarri eta bideragarria izan. Hala ere, Ordenantzari esker 1837ko gobernu moderatuak errepidetako zenbait presondegitara bidali zituen zigortuak, Ávila-Salamanca, Bonanza-Puerto de Santa María, Córdoba-An-tequera, Granada-Motril, Logroño-Calahorra, Palencia-Magaz, Soria-Logroño eta Valladolid-Olmedo zatietara, alegia (Burillo, 1999:210-217).

1843an herri-lanen araudi bat egin zen, eta aldi berean martxan jarri zituzten lehenengo aldiz espetxe barruko tailerrak. Paradigma utilitaristak bizirik irauten zuen, nahiz eta kritika asko izan. 1844an, prentsak prisioneroen bortxazko lanen gizagabetasuna eta eragiten zituzten hildako kopuru handia kritikatu zituztenean, sistemak heriotza-zauria jaso zuen. Geroztik, Estatu hasi zen neurtzen eta mugatzen presoaren erabilera kanpoko lanetan. Nahiz eta enpresa handiek presioa egiten jarraitu, batez ere *Canal de Castillak*, 1848ko Kode Penalak kondenatuen lan mota hori aldi baterako edo biziarteko kartzela-zigor kasuetara mugatu zuen, askoz gutxiago zirenak. 50.eko hamarkadan presondegi berriak sortu zituzten, horien artean Pajaresekoa, Asturiaseko errepedea eraikitzeko. Baina zigor gogor horien kontra gero eta jende gehiago zegoenez, zenbait xedapen bermatzaile edo garantistak agindu zituzten. Horrek zigortuen bortxazko lanak garestitu zituen, eta zailago egin zuen lan mota hori erabiltzea. Horrela bukatu ziren bortxazko lanak, agonia-distira bat salbuespen: burdinbideetako lanak 60.eko hamarkadan (Burillo, 1999: 26).



tinuaron las presiones de las grandes empresas, sobre todo las que provenían de Canal de Castilla, el Código Penal de 1848 restringió ese tipo de ocupación de los condenados a los casos de cadena temporal y perpetua, mucho más minoritarios. En la década de los cincuenta se crearon algunos nuevos presidios –como el de Pajares para la carretera de Asturias–, pero como crecía el desafecto social hacia una penalidad tan dura, se decretaron algunas disposiciones garantistas que encarecieron el trabajo de los penados y pusieron más difícil su utilización. Así es como se llegó a su final, salvando algún “agónico destello” en las obras del ferrocarril durante los años sesenta (Burillo, 1999: 261),

En las tres primeras décadas de triunfo y asentamiento del Estado liberal, a la vez que se imponían los trabajos en obras públicas también se asistía a su crisis. En medio de un agrio debate sobre los proyectos de reorganización carcelaria, que enfrentaba a los defensores del utilitarismo con los partidarios del correccionalismo, a la querrela política provocada por las denuncias de abusos y corrupciones se unía la disputa por motivos económicos y por la ineficacia en la gestión del trabajo de los prisioneros, entre otras cosas, porque faltaban recursos y porque cada comandante de presidio cumplía e incumplía la normativa actuando según su propio criterio personal.

En los años cincuenta el público apenas podía ver ya el trabajo de los destacamentos de prisioneros. Estaba abolido de facto, lo que no quiere decir –por supuesto– que podamos considerar extinguido todo forzamiento en

la actividad de los establecimientos penitenciarios. Sin contar con las obligaciones que veladamente se derivan de un régimen de premios y castigos, considérese que, amparándose en la opacidad del sistema prisional, los carceleros podían imponer a los presos trabajos abusivos e ilegales. Por otra parte, no se pierda de vista la dura penalidad disciplinaria del ejército, tan asumida por la cultura militar de la época y por su tradición, lo que en España ilustra muy bien la larguísima pervivencia de las Reales Ordenanzas de Carlos III, por encima y más allá de las codificaciones militares promulgadas a finales del siglo XIX. Contra las automutilaciones de los reclutas que intentaban eludir el servicio militar, o para sancionar las conductas negligentes de la tropa en el cumplimiento de destinos y misiones, además de por un largo etcétera de conductas punibles dentro de los ejércitos, se podían imponer durísimos castigos disciplinarios. Esto último es lo que en cierto sentido recogía el Código de Justicia Militar de 1890, a través de una fórmula que a todas luces daba cobertura a la posible imposición de trabajos forzados: *“El destino á un cuerpo de disciplina se sufrirá en los creados con este objeto. Los sentenciados en tiempo de campaña en un cuerpo de disciplina ò á arresto, serán destinados en los Ejércitos de operaciones á desempeñar los servicios más penosos”* (artículo 644). La memoria social de la mili lo confirma.

Sin desconsiderar, pues, la sempiterna excepcionalidad de la jurisdicción militar, lo cierto es que los trabajos forzados desaparecieron tempranamente del repertorio de ejecución de penas ordinarias, después de haber discutido larga y enconadamente sobre ello: en función de

si la organización del trabajo de los presos debía responder a criterios retribucionistas, a través del laboreo en obras públicas, para que pagaran por el daño causado a la sociedad; o si se debían perseguir objetivos correccionalistas en talleres prisionales que inculcaran en el delincuente el valor educador e integrador del trabajo, según su más vehemente promotor, el célebre coronel Montesinos, mentor de un incipiente sistema progresivo premial-punitivo y aun así partidario de que el condenado por delitos muy graves –juizado como incorregible– pagara su condena con trabajos muy penosos, incluso los que pudieran provocar la muerte (Serna, 1988).

Con el triunfo político del retribucionismo y el correccionalismo como alternativas penitenciarias, algo que se reforzaba con la incorporación al sistema de la experiencia correccional de las casas-galera femeninas, iba a terminar la era del utilitarismo penal. Ya no se justificaba la explotación del trabajo productivo de los penados. Se estaba implantando un sistema penitenciario con regímenes progresivos de cumplimiento de condenas que decían defender el valor corrector del trabajo ocupacional. Desde que se promulga el Código Penal de 1870 se promueve con más decisión el reparto de oficios y destinos entre la población reclusa, aunque en la práctica, el fomento del aprendizaje laboral entre los corrigendos se haría a trancas y barrancas, de hecho no adquirió cierta importancia hasta la década de los ochenta y sólo en algunas prisiones (Llorca, 1992: 275-276). En verdad, lo que más cabe destacar no habla bien de los logros perseguidos. El sistema no amortiguó la inercia del retribucionismo. Y a la falta de recursos



BDST 14, Lesaka, 1941  
Cesión / Lagapena: Ángel Santisteban, prisionero

Estatu liberalaren garaipenaren eta ezarpenaren lehenengo hiru hamarkadetan, herri-lanetan presoak erabiltzen zituzten bitartean, krisian ere sartu ziren bortxazko lanak. Utilitarismoaren defendatzaile eta korrekzionalismoaren aldekoen artean espetxeak berrantolatzeko asmoen inguruan eztabaida garrantzia izan zen. Aldi berean, gehiegikeria eta ustelkeriaren salaketek eragiten zuten liskar politikoari beste eztabaida bat gehitu behar diogu: arrazoi ekonomiko eta prisioneroen lanen kudeaketaren eraginkortasun eza-gatik ematen zena. Bortxazko lanen gestioa ez zen eraginkorra izan, batez ere bi arrazoiengatik, baliabide faltagatik eta presondegi bakoitzeko komandanteek, arautegia betetzekotan, beraien irizpideen arabera betetzen zutelako.

50.eko hamarkadan jendeak nekez ikus zezakeen prisioneroen destakamenduen lana. Errealitatean, de facto in-

dargabeturik zeuden; baina horrek ez du esan nahi, jakina, bukatutzat ematen ahal ditugula bortxazko lanak kartzeletan. Sari eta zigor erregimenaren ondorioz sotilki ezartzen ziren betebeharrak kontuan hartu gabe, kartzela-sistemen iluntasunak babesturik kartzelariak gehiegizko eta legez kontrako lanak ezartzen zizkieten presoek. Bestetik, ez da ahaztu behar ejertzitoaren zigor-sistema gogorra, garaiko militarrek

oso barneratuta. Espainian horren adibidea da Carlos III.aren Errege Dekretuek luze iraun zutela, XIX. mendearen bukaeran ateratako kode militarren gaineratik eta horietaz haratago. Soldaduek soldadutza saihesteko beraien buruei egindako mozketei aurre egiteko; edo destinoak eta egitekoak betetzerakoan troparen portaera arduragabea zigortzeko; eta orokorrean ejertzitoan gertatzen ziren jokaera zigorgarriekin bukatzeko asmoz, diziplinazko arau oso gogorrak ezartzen ahal zituzten. 1890eko Justizia Militarreko Kodeak argi eta garbi ematen zuen bortxazko lanak aplikatzeko aukera: *“El destino á un cuerpo de disciplina se sufrirá en los creados con este objeto. Los sentenciados en tiempo de campaña en un cuerpo de disciplina ó á arresto, serán destinados en los Ejércitos de operaciones á desempeñar los servicios más penosos”* (644. artikulua). Soldadutzaren oroimen sozialak hori bera baieztatzen du.

Kontuan izanik jurisdikzio militarra beti salbuespena izan dela, egia da bortxazko lanak zigor arrunta gisa erabiltzeari laster utzi ziotela, horren inguruan eztabaida luzea eta gogorra eman ondoren. Batzuen ustez, presoek lana irizpide erretribuzionisten arabera antolatu behar zen, gizartean egindako kaltea herri-lanetan arituz ordaindu ahal izateko. Beste batzuen arabera, berriz, helburua korrekzionalista izan behar zen, hau da, espetxe barruko tailerretan gaizkileari irakatsi behar zioten lanaren balore hezitzaile eta integratzailea. Hala ere, Montesinos koronel ospetsua, korrekzionalismoaren bultzatzaile sutsuena eta aurrera zihoan sari eta zigor sistema hasiberriaren zaintzailea, bortxazko oso lan gogorrak, heriotza eragiten ahal zituztenak barne, aplikatzaren aldekoa zen delitu larrietan, hau da, kondenatua zuzendu ezinezkotzat jotzen zutenean (Serna, 1988).

Espetxe alternatiba gisa erretribuzionismo eta korrekzionalismoaren politiken garaipenarekin utilitarismo penaren aroa bukatuta zegoen, eta hori emakumeentzako galera-etxeen esperientzia korrekzionalista sisteman sartzearekin indartu zen. Testuinguru horretan, zigortuen lan produktiboaren esplotazioak ez zuen justifikaziorik, eta horren ordez lanaren balore zuzentzailea defenditzen zuten espetxe sistema berri bat ari zen ezartzen. 1870eko Kode Penalera atera zenetik indar handiagoz bultzatu zen lanbide eta destino banaketa presoek artean. Errealitatean, berriz, presoentzako lanaren bidezko ikas jarduerak oso motel jarri ziren martxan, eta egia esan ez zuten garrantzirik izan 80.eko hamarkadara arte, eta presondegi batzuetan soilik (Llorca, 1992: 275-276). Egiazki, azpimarratzeko modukoak ez du ongi hitz egiten nahi

para llevar a cabo el ideario correccionalista hubo que añadir muchos incumplimientos y muchos proyectos fallidos, como el de las colonias agrícolas penitenciarias y los proyectos ocupacionales con los presos más jóvenes (Trinidad, 1991: 161-165). El paisaje humano de los recintos penitenciarios, cada vez más poblados, cada vez con más reincidente y cada vez más criminógenos, ofrecía más imágenes de ociosidad que de laboriosidad; con un problema añadido que a su vez provocaba polémicas y retrasos en los planes de creación de talleres dentro de las prisiones: las protestas obreras y patronales por la competencia ilegítima que supuestamente los talleres hacían a la industria libre (Oliver, 2001: 292-293).

Ésas fueron algunas de las características de un régimen penitenciario que creció y se reformó durante el largo período de la Restauración. Más tarde, el sistema de penas y castigos ideado por republicanos y socialistas en 1931, aunque algo sesgado ideológicamente por la lectura marxista que del positivismo italiano habían hecho reputados juristas como Jiménez de Asúa, reforzaría la idea de régimen progresivo y las propuestas premial-punitivas que habían planteado desde finales del siglo XIX los penitenciaristas reformadores, entre los que se distinguieron Dorado Montero y Concepción Arenal. En principio, aquel reformismo penitenciario, junto con la fundamentación social del nuevo Código Penal de 1932 y la imagen renovadora de Victoria Kent como Directora General de Prisiones, se presentaba de una manera más técnica y profesionalizada con fines explícitamente reeducadores y reinsertadores. Sin embargo, con la guerra civil, y más concretamente desde el momento

en que se adoptaron las primeras soluciones concentracionarias (también en la parte republicana), desapareció por completo el camino que había conducido al penitenciarismo español hasta el proyecto reformista de la Segunda República.

### **La reinención franquista del utilitarismo punitivo**

El régimen de Franco, a la vez que evocaba pasados mucho más lejanos que los inmediatamente republicanos, reinventaba su presente e ideaba una nueva España con un nuevo sistema penal. Por un lado, utilizaba a los prisioneros como si formaran parte de un botín de guerra y, cuando esclavizaba a presos y a soldados trabajadores, hacía gala de lo que, al referirnos a otras épocas mucho más pretéritas, hemos dado en llamar utilitarismo punitivo (incluso reproducía su larga estela de improvisación organizativa y regimental, arbitrariedad jurisdiccional, eficacia represiva e incompetencia productiva). Sin embargo, a la hora de fabricar y reproducir políticas y lenguajes normativos, tan rimbombantes en el imaginario revolucionarista del franquismo azul de los primeros años, aquello que en



BDST 38, Aiako Harria, 1941 - 1942

*Cesión / Lagapena: Pedro Erezuma y familia de Antonio Ansoleaga, prisioneros*

principio parecía fundamentarse de forma tácita en una suerte de derecho de conquista, se presentaba envuelto de una vehemente penología a la vez retribucionista y correccionalista, y de una retórica humanizadora y pietista que trazaba como fines de la pena la expiación y la redención del condenado.

Al igual que ocurriera con otros discursos pseudocientíficos, como el del doctor Vallejo-Nájera acerca de las perversiones de las mujeres izquierdistas, el penalismo franquista amalgamaba los paradigmas penales hasta entonces conocidos para fundamentar la criminalización

zituzten lorpenei buruz. Sistemak ez zuen erretribuzionalismoaren inertzia arindu. Eta korrekzionalismoaren ideiak aurrera eramateko baliabiderik ezari bete gabeko edota arrakastarik gabeko proiektuen egoera gehitu behar diogu, adibidez, espetxetako nekazari-koloniak edota lanerako proiektuak presorik gazteenekin (Trinidad, 1991: 161-165). Espetxeak gero eta beteago zeuden, gero eta berrerorle gehiagorekin eta gero eta kriminalago. Giza paisaia horretan nabarmenagoa zen alfertasuna ardua baino. Espetxe barruan tailerrak sortzeko orduan eztabaidak eta atzerapenak eragiten zituen beste arazo bat izan behar dugu kontuan: langile eta ugazaben protestak tailerrek industria libreari egiten zioten balizko legez kontrako lehiagatik (Oliver, 2001: 292-293).

Horiek dira Errestaurazio garaia luzean hazi eta erreformatu zen espetxe erregimenaren zenbait ezaugarri. Geroago, 1931an errepublikanoek eta sozialistek bultzaturiko pena eta zigorren sistemak erregimen progresiboaren ideia eta sari-zigorren proposamenak indartuko zituen. Proposamen horrek Jiménez de Asúa bezalako jurista ospetsuek Italiako positibismoari buruzko egindako irakurketa marxistaren eragina eta XIX. mendearen bukaeratik kartzelatan aditu berritzaileek, batez ere Dorado Montero eta Concepción Arenal, planteatutako ideiak jasotzen zituen modu berezi batean. Hasiere batean, espetxe erreformismoak modu teknikoago eta profesionalizatuagoak erakusten zituen, berrezitzeko zein birgizarteratzeko helburuekin, hori guztia 1932ko Kode Penal berriaren oinarritze sozialekin eta Victoria Kent Espetxetako Zuzendari Nagusiaren irudi berritzailearekin indarturik. Hala ere, gerra zibilaren hasieratik, eta batez

ere lehendabiziko erantzun kontzentzionarioak (baita errepublikazaleen aldean ere) hartu zirenetik, erabat desagertu zen presondegietakako erregimena II. Errepublikako proiektu berritzailean eraman zuen bidea.

### **Utilitarismo punitiboaren berrasmaketa frankista**

Frankismoak, Errepublikako hurbileko garaia baino urrutagoak goraiatzeaz gain, bere orainaldia berrasmatu eta beste sistema penal bat izanen zuen Espainia berria antolatu nahi zuen. Batetik, prisioneroak gerrako harripakina gisa erabiltzen zituen. Gainera, presoak eta soldadu langileak esklabo bihurtzen zituenean, harro agertzen zen iragan garaietan utilitarismo punitibo deitu dugunaz, utilitarismo horretan ematen ziren zenbait ezaugarri errepikatuz: antolaketakoko bat-batekotasuna, epaileen bidegabekeria, errepresioaren eraginkortasuna eta ekoizpenerako gaitasun falta. Hala ere, lehen denboretako frankismo urdinaren imaginario sasi-iraultzailean hain burrunbatsuak ziren hizkera eta politika normatiboak ekoiztu eta ezartzeko tenorean, hasiera batean inplizituki konkista eskubidean oinarritzen ziren praktika errepresiboak penologia erretribuzionista eta korrekzionalistaren barrenean aurkezten zen, zigortuaren salbazioa eta garbiketa zigorraren helburu gisa aurkezten zituen erretrika gizatartzaile eta jainkozalearekin batera.

Beste diskurtso sasi-zientifikoekin gertatu bezala, adibidez Vallejo-Nájera doktoreak emakume ezkertiarren

perbertsioen inguruan egindakoan, Francoren zigorsistemak ordura arte ezagututako paradigma penalak nahasten zituen gaizkile berrien kriminalizazioa eta penalizazioa funtsatzeko, hau da, kolpe militar eta gerra zibilaren ondoren galtzaile eta gatibu izan zirenak edota atzeraeraginezko lege berezi berriak aplikatuz epaitu zituztenak zigortzeko.

Bortxazko lanen justifikazioari dagokionez, batetik, erretribuzionismoa bat zetorren garaileen militarismoarekin, onartu eta defenditzen zelako galtzaileek haien lanarekin ordaindu behar zutela borrokaldian ustez eragina zuten suntsiketa, eta, azken finean, zigor nekeza armadaren diziiplina tradizio luzearen osagai garrantzitsua zelako. Bestetik, gorrien eta separatisten aurka erabilitako korrekzionalismoak aberriaren gorputz eriaeren gaineko ekintza eraginkor eta erabakitzailea proposatzen zuen amets falangista berrelikatzen zuen, Espainiako historiaren ibilbide okerra behin betiko birbideratzeko, eta artean berreskuragarritzat jotzen zituztenen arima zuzendu ahal izateko.

Aldi berean, nazional-katolizismoarekin eta zigor zein karitatezko erakundeetan elizaren ohizko presentziarekin bat zetorrela, ez zen falta Espainiako redondorismo katoliko zaharraren estalkia, zigortua zuzentzeko eta bihurtzeko errua ordaintzea behar-beharrezkoa zela aldarrikatzen, eta eskatzen ere, bazuena. Errepresio latzena izan zen urteetan, gutxienez 1938tik 1943ra bitartean, ordainketa, zuzenketa eta erredentzioa bezalako kontzeptuak nonahiko erretorikaren parte ziren, zigorraren asmo esplikatuaz haratago, epaien eta bururatutako zigorren be-

y la penalización de los nuevos delincuentes, es decir, de todos aquellos que habían sido derrotados y capturados tras el golpe militar y la guerra civil, o procesados por las nuevas leyes especiales y retroactivas.

En el caso de la justificación de los trabajos forzados, si por un lado, el retribucionismo casaba bien con el militarismo de los vencedores, porque se aceptaba y defendía que los vencidos debían pagar con su esfuerzo la destrucción que supuestamente habrían ocasionado durante la contienda, y porque a fin de cuentas el castigo penoso formaba parte de la larga tradición disciplinaria del ejército; por otro, el correccionalismo ejercido contra rojos y separatistas retroalimentaba aquel ensueño falangista de una acción eficaz y decisiva sobre el cuerpo enfermo de la patria, para que de una vez por todas se enderezara el curso torcido de la historia de España y se corrigiera el alma de aquellos que todavía eran recuperables.

Al mismo tiempo, y en consonancia con el nacionalcatolicismo y con la tradicional presencia de la iglesia en las instituciones punitivas y caritativas, tampoco faltaba el envoltorio del viejo redentorismo católico español, el que proclamaba (y reclamaba) la importancia de la expiación de la culpa para la corrección-conversión del castigado. Durante el período de más represión, al menos entre 1938 y 1943, conceptos como retribución, corrección y redención formaron parte de una retórica circundante que escondía las verdaderas funciones militares y económicas de las sentencias dictadas y de los castigos realmente ejecutados, más allá de la finalidad expresa de la pena.

Asimismo, no era otra cosa que nuevo eclecticismo utilitarista lo que destilaba la fórmula de redención de penas por trabajo ideada en 1938 por el jesuita Pérez del Pulgar, una ideología penal y al fin una normativa que, además de fundamentar la explotación laboral del preso y de posibilitar la gestión del hacinamiento del sistema carcelario asimilando procedimientos premial-punitivos y progresivos, fue largamente aprovechada por el régimen para propagandear la imagen de una supuesta humanización del sistema penitenciario de la dictadura (aunque también es verdad que con el tiempo la idea se iría asentando y tecnificando hasta perder su envoltura moralista original, llegaría a cumplir funciones regimentales y ocupacionales no exclusivamente utilitaristas, hasta entramarse con los fines resocializadores de la pena que luego proclamaría la Constitución de 1978, por lo que podemos afirmar que creó cultura de castigo y tradición en el sistema penitenciario español, y que quizás por eso se mantuvo vigente como institución durante mucho tiempo, hasta la reforma de 1995).

La ideología punitiva de la época no tendría mucha enjundia teórica, pero es indiscutible su funcionalidad de primera hora en la represión franquista, tal y como documenta la bibliografía más reciente sobre campos de concentración (Javier Rodrigo), Colonias Penitenciarias Militarizadas (equipo de investigación Canal de los Presos), batallones disciplinarios (Fernando Mendiola y Eurne Beaumont), y otras unidades de explotación laboral de presos y prisioneros que aparecen recogidas en este libro-catálogo. Si observamos los resultados de aquel basto proyecto de imposición de trabajos forzados,

deducimos que, al margen de su gestación improvisada en el contexto bélico, se proyectó sobre todo para utilizar la mano de obra gratuita o semigratuita de los presos políticos y los soldados desafectos.

En esencia no era una idea original, pero tampoco un mero retorno al viejo utilitarismo ni una repetición anacrónica y falsaria. Podemos considerarlo una reinención, porque recuperaba su antigua resonancia en otras coordenadas políticas y temporales. Por eso su estudio histórico-empírico nos permite categorizarlo con entidad propia como utilitarismo punitivo franquista. Una experiencia que al fin debía salir de la metahistoria penal para merecer la atención de la historiografía crítica. Una cruel y peculiar aportación española a la historia de la penalidad moderna.

netako funtzio militar eta ekonomikoak ezkututzen zituen erretorikaren parte, alegia.

Halaber, 1938an Perez del Pulgar jesuitak zigorra lanaren bidez erredimitzeko asmatu zuen formulak eklektizismo utilitarista berria baino ez zekarren. Ideologia penalak zein araudi horiek presoaren lan esplotazioa funtsatu eta espetxe-sistemaren pilaketaren kudeaketa ahalbiderratu zuten, sari-zigor prozedurak tratamendu progresiboarekin txertatuz. Horien bidez, gainera, diktadurak bere espetxe sistemaren ustezko gizartetzea iragarri nahi izan zuen. Dena den, egia da denborarekin ideia hori, presoaren lanaren balizko bertuteena, finkatzen eta teknifikatzen joan zela, hasierako diskurtso moralista galduz eta funtzio utilitaristak ez ezik, erregimen zein okupazio betebeharrak ere betez. Horrela, ideia horrek bat egin zuen 1978ko konstituzioak aldarrikatzen zuen zigorraren helburu birgizarteratzailearekin; horregatik esan dezakegu espainiar espetxe sisteman zigor kultura eta tradizioa sortu zituela, eta beharbada horregatik horren luzez iraun zuen, 1995eko erreforma arte.

Lanaren bidezko zigorraren berrerosteak ez zuen muin teoriko gehiegirik, baina kontzentrazio eremuei buruz (Javier Rodrigo), *Colonias Penitenciarias Militarizadas* delakoei buruz (Presoen Ubidearen ikerketa taldea), diziiplina baitailoiei buruz (Fernando Mendiola eta Edurne Beaumont) edota liburu-katalogo honetan agertzen diren gatibuen lana aprobetxatzeko beste modalitateei buruzko bibliografiak ederki erakutsi duen bezala, ukazina da hasiera bateko errepresioan izan zuen funtzionalitatea. Bortxazko lanak ezartzeko proiektu erraldoi horren emaitzak azter-

tzean, argi dago, gerra garaiko tupusteko jaiotzaz hara-  
tago, preso politiko eta soldadu desafektuen doako esku  
lana erabiltzeko sortu zela.

Finean, ez zen ideia originala izan, baina ezta utilitarismo zaharrerako buelta hutsa ere, edota horren errepikatze anakroniko eta faltsua. Berrasmetatzen jo dezakegu, beraz, lehenengo hizkera beste koordinatu politiko eta tenporaletan berreskuratzen zuelako. Horregatik bere ikerketa historiko enpirikoak izaera propioa duen utilitarismo punitibo frankistatzen sailkatzeko aukera ematen digu. Metahistoria penaletik atera beharko zen esperientzia bat, azken batean, historiografia kritikoaren arreta eta ikerketa merezi duena. Penaltate modernoaren historiari egindako espainiar ekarpen krudel eta berezia.

1. Itzultzailearen oharra: presondegi hitza ezin dugu espetxearen sinonimo huts bezala ulertu, garai horietan ezberdinak baitziren gaztelaniazko "presidio" eta "cárcel" kontzeptuak. Lehen urrutiko tokiak ziren, helburu militarrekin egindakoak; bigarrena, berriz, espetxe moduan ulertu behar dugu.

## Trabajos forzados, economía de guerra y empresa durante el Nacionalsocialismo. Un breve balance de recientes investigaciones en Alemania

Gloria Sanz Lafuente (Universidad Pública de Navarra)

